







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %10,7 egin zuen behera ekainean, 2015. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %11,1 jaitsi zen, etxekoan %16,6 eta zerbitzu arloan %4,8. Lehen seihilekoan izandako kontsumo metatuak %4,8 egin zuen behera, 2015eko epe berarekin konparatuta; etxeko sektorean %6,9 jaitsi zen, industrian %6,3 eta zerbitzuan eutsi zion. Industrian gora egin duten azpiarloak hauexek izan dira: beiragintza (+ %10,3), burdinazkoa ez den metalurgia (+ %8,8), papera (+ %5,3) eta kautxuzko eratorriak (+ %6,3); siderurgia (- %17) eta zementua (- %1,9), ordea jaitsi dira.

Gas naturala







Ekainean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %8,1 egin zuen behera, 2015eko ekainean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %10,6 jaitsi zen eta gainerako sektoreena %7,5. Lehen seihilekoan izandako kontsumo metatuak %10,2 egin du behera, aurreko epealdiaren aldean, (- %28,6 CCTT-n eta + %6,9 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Maiatzean, garraioan erregaien kontsumoa %14,6 igo zen, 2015. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %10 egin zuen gora eta A gasolioarenak %15,1. Maiatza arteko kontsumo metatua %4,1 igo zen, 2015eko epealdi berarekin alderatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %3 egin zuen gora eta A gasolioarenak %4,2.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera








EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Ekainean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 95,6 milioi kupel izan zen (2015eko ekainean izandakoaren aldean, %1,4 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %2,2 egin zuen behera kontsumoak, 13,6 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan, aldez, %3,5 egin zuen gora, eta 11,9 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan, %0,6 igo zen, eta 19,7 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, azken 6 hilabetean, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,5 igo da, oro har, Txinan %3,8. AEBetan %1,1 eta Europar Batasunean %1,1.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %0,2 egin zuen gora ekainean, 2015eko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Lehen seihilekoan izandako kontsumo metatuak %2,3 egin zuen behera. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, behera egin zuen ekainean, %0,4, 2015eko ekainean izandakoaren aldean. Ekainera bitartean izandako kontsumo metatuak %0,6 egin zuen behera. Espainiako errepideetan erregaien kontsumoak %3,6 egin zuen gora maiatzean, 2015eko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %2,1 igo zen eta gasolioena %3,9. Maiatzera bitarteko kontsumo metatuak %3,6 egin zuen gora, 2015. urteko epealdiaren aldean, (%2,2 gasolinak eta %3,9 gasolioenak). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %3,5 egin zuen gora maiatzean; maiatzera bitarteko kontsumo metatua %4,7 igo zen, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEK prestatua, AIE eta EIAREN datuetan

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 48,5 \$ (43,1 €) izan zen ekainean. Urte mugikorren batez besteko prezioak %40,9 egin zuen behera (%34,9 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 38,9 €/MWh izan zen ekainean; duela urtebetearen aldean, %28,9 egin zuen behera.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 13 €/MWh izan zen maiatzean, eta %38,4 jaitsi zen, 2015eko hil berean izandakoarekin erkatuta. Ekainean, EGIX-en prezioa 14,5 €/MWh izan zen (2015eko ekainean izandakoarekin alderatuta, %30,1 jaitsi zen).

Spot merkatuetan, ekainean, Henry Hub-en prezioa 7,8 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 13,6 €/MWh (2015eko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %7,3 eta %35,6 jaitsi ziren, hurrenez hurren).

Erregaien prezioa

EAEn, maiatzean, gasolioaren prezioa 1,01 €/l izan zen (urtebetean %14,8 jaitsi da), eta gasolinarena 1,15 €/l (urtebetean %10,8 jaitsi da).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 5,6 €/t izan zen ekainean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %25,5 egin du behera.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.